

Tere Maldonado Barahona

(Filosofia eta etika irakaslea)

Santi Angulo Martinek (EGUNKARIA, 2002-06-02) eta Harluxet Hitzegi Entziklopedikoak (besteak beste) esaten dutenez, etika giza ekintzen balorazio moralaz diharduen filosofiaren atala da. Kontuan harturik *etika* eta *moral*a hitzak sinonimotzat hartzen direla askotan, ez dugu gauza handirik esan. Goazen ba ikustera zer ote den balorazio moral edo etikoa.

Jakin badakigu balorapen eremuantzen garenean subjektibotasun eta erlatibotasun eremuetan ere sartuak garela. Alderantziz, baloratu beharrean deskribatu egiten dugunean, objektibotasuna errazagoa suertatzen da, teorien behintzat: gela bat deskribatu behar izatekotan, horren neurriak eman

ahal ditugu, eta gela bat zenbat metro luze den esateko orduan ez dago inolako balorapen subjektibo ezta erlatiborik ere: hiru metro hiru metro baitira beti, eta zailantzan egonez gero, metroari heldurik, konprobatzea gure esku daukagu beti. Gela handia ala txikia den erabakitzeko orduan, berriz, arazo gehiago topatuko genituzke, gauza bat handia ala txikia baita norentzat den, zerekin alderatzen dugun, zertarako erabiltzen dugun, eta abar. Are gehiago gela polita ala itsusia den baldin bada erabaki behar dena, hor ez bailegoke konprobatzeko modurik; balorapen eremuetara irristatu gara. Era berean, talde batek egiten duenaz hitz egiteko «borroka armatua» ala «terrorismoa» espresioak erabil ditzakegu. Gure herri honetan bi moduotan aipatzen da ETArek aktibitatea. Zein da bestea baino egokiagoa? (Hasteko, ados jarri beharko genuke hitzen esanahietan, baina ez dirudi bide horretatik goazenik, eta horrela dela ikusteko, *faxismo* eta *faxista* hitzekin gertatzen denaz konturatzeari nahikoa da, elkarri leporatzeko besterik ez baitira erabiltzen, eduki gabeko arma jaurtigarri bihurtu dira, «itsusia» bezalako adiera edukiko balute bezala, «faxista ni ez, zu» entzutea faltatzen da bakarrik. Eta nirekin bat ez datorren edonor eta edozer faxista izan daitekeenez, benetako faxismoaren aurrean aurkitzen bagara ez dugu hori defi-

nitzeko hitzik izango, gehiegizko erabilera egiten denean hitzek esanahia galtzen baitute). Agerian dago deskribapen eta balorapenaren arteko muga ez dela batere zehatza.

Hala ere, balorapen eremua handia izanik, ohikoa da bi balorazio mota desberdintzea: etikoa eta estetikoa. Batak ongia-
ren eta gaizkiaren ikuspuntutik baloratzen ditu giza ekintzak; besteak, edertasuna eta edertasunik eza du ardatz munduko gertakariak epaitzeko. (Ongia, gaizkia, edertasuna... ba al dago horiek baino erlatiboagoa?). Askok idatziz da etika eta estetika-
ren arteko harremanaz. Antza, desberdinak izan arren, loturaren bat bada-
go egon bien artean: (etikoki) txarto dagoenaz (estetikoki) itsusia dela esaten da askotan. Eta

balorapenak diren aldetik, baieztapen erlatiboak eta subjektiboak egiten dituzte biek. Baina baieztapen *guztiz* erlatiboak eta subjektiboak? Hor dago koska.

Ez dakit nik estetikaz gauza handirik, gustuetan irizpide finkorik ez egotea onartzen da sarritan, baina gustu onaz eta gustu txarraz ere hitz egiten da beste askotan. Orri hauetan honi buruzko eztaba- irekitzea interesgarria litzateke oso.

Baina Santi Angulo irakasleak etikan planteatzan du erabateko erlatibismoa. Ez dakit zein ikasgaitan aritzen den, etikan ez izatea espero dut, bere ikasleei etika iritzi hutseko kontua, erabat subjektiboa eta erlatiboa dela esaten badie... jai dugu eta. (Horrela balitz, zertarako beharko luketen etikan irakaslerik, diot nik). Egia da etikaz aritzean ez dugula «bi-gehi-bi-berdin-lau» bezalako baieztapenik egiterik, baina horrek ez du esan nahi «bakoitzak bere etika» daukanik. Hori da nire ikasle nerabezeroek esaten dutena estreinakoz etika deitutako ikasgaiarekin topo egiten dutenean: «Etika? Bakoitzak berea, ezta?». Bai eta ez azaldu behar zaielakoan nago ni.

Norberaren bizitza pribatuari dagokionez, norberak ezarri behar du bere «bizitza onaren» kontzeptua, eta gainontzekoen eskubideak errespetatzen dituen bitartean, aske izan behar da gizabanakoa bere etika pribatu hori gauzatu ahal izate-

ko eta nahi duen bizitza eramateko. (Hori da, hain zuzen ere, gizarte totalitarioek eta itxiek onartzen ez dutena: Francoren garaian debekatuta zegoen preserbagai-luak erabiltzea edo ezkondu gabeko bikoiteek logela bakarra alokatzea hoteletan... homosexualitatea, pornografia, «aste santuan» zinematik itxita egotea eta abar leta abar ez aipatzeko).

Elkarbizitza publikoari dagokionez, berriz, derrigorrezkoa da gutxieneko puntu batzuk guztiok onartzea. Esparru horretan etikaren erlatibismoa bera erlatiboa da. Hor ezin dugu Angulok defendatzen duen etikaren erabateko erlatibismoa onetsi, posmodernoek nahi izan duten antzera «edozerk balio duen» leloa ezarritz. Giza jokabideen artean badaude batzuk arbuigarriak direnak, erabat onartu ezinak direnak, tortura kasu: hor ez dira ikuspuntu desberdinen kontuak sartzen, hor ez dago «zuzentzat ez da onargarria, beste batentzat agian bai» esaterik, hor ez dago salbuespenik nor, nork, zertarako... eta abarren arabera.

Eta hori, nahiz eta eraginkortasunaren ikuspegitik erabilgarriak izan jokabide batzuk. Puntu honetan Santi Angulo Frankfurteko filosofoek salatutako arrazoi instrumentalean erortzen da zeharo. Arrazoi mota honetan eraginkortasuna eta etekina besterik ez dira aintzakotzat hartzen bitartekoak egokiak diren ez esateko: aldeztu aurretik jarritako helburuetara eramaten bagaituzte, egokitzat hartuko ditugu, kito. Horrela, «edozerk balio du», jakina, helburu batera heltzeko. Baina horrek ez du zerikusirik etikarekin.

Balorazio etikoaren zere-
gina ez da gure helburuak lor ditzagun
erraztasunak ematea; izan ere, askotan
eraginkortasuna oztopatu egiten du eti-
kak. Zer esanik ez, eskrupulu gabekoak
arinago ailegatzen dira beren helmugeta-
ra; ikuspuntu honetatik begiratuta, arra-
kastatsuagoak izan daitezke, baina ez eti-
koagoak. Angulok aipatu borroka molde
horiek, helburuak lortzeko ahalmenaren
ikuspuntutik eraginkorrak izan dira,
dudarik ez. Baina eskakizun etikoa beste-
lakoa da. Etikak bitartekoak jartzen ditu
auzitartean, etekina eta eraginkortasuna

alde batera utzita hain zuzen ere, azken hauek arrazoi tekniko edo instrumentala-
ren gakoak izanik. Arrazoi instrumentala
zergatik den zapaltzailea ez dut uste
gogoratu behar denik.

Bestaldetik, pertsona bakoitzak bere etika propioa baldin badauka, orduan sobera dago erlijioaren arabera multzoka kokatzea etika aintz horiek, kristau edota musulman guztiek iritzi berberak edukiko balituzte bezala. Egia esan, etika desberdinak baino gehiago, erlijioetan oinarritzen direnak *kode moral* desberdinak dira, eta etika laiko batetik (irakaskuntzan irakatsi behar dena, irakasle zein ikasleen sinesmenak eta sineskeriak alboratuta) horien fundamendu eza salatzen da, batzuen fedean oinarritzen direlako eta ez guztion komun dugun arrazoian, saria/zigorraren arabera jokatzeko dutelako moral erlijiosoen barne mugitzen direnek, eta ez dohaintasunez, hau da, interesa bilatu gabe (jokabide etikoaren ezaugarria dena), autonomoa baino heteronomoa (kanpotik ezarritakoa) delako, eta abar.

Honetaz guztiaz gain, badago beste gauza bat etikari eskatu behar zaiona eta honen erlatibotasuna mugatu egiten duena: koherentzia. Adierazpen askatasuna defendatzen badugu (esate baterako),

gure gustukoak ez diren iritziak plazaratzen direnean ere defendatu beharko edo, bestela, onartu adierazpen askatasunaren aldekoak ez garela, iritzi jakin batzuk adieraztearen aldekoak baizik. Horrela, etiko-a ote den galdetu baino gehiago, Angu-

lok jarritako hainbat adibidetan («etikoa al da intsumisioaren alde egonik ertzainak intsumisoak atxilotzera bidaltzea...?», adibidez) egokiagoa litzateke ea koherenteak diren galdetzea. Dena dela, antimilitarismoari dagokionez Angulok aipatutakoa ez da koherentzia gabetasun bakarra gure herri honetan, zoritxarrez.

Erlatibotasunak erlatibotasun, eta zilegitasunak zilegitasun, ez dakit nik zilegizkoa den «gure herriaren nahiaz» hitz egitea, ala egokiagoa litzatekeen herri honen parte baten nahi zilegizkoaz mintzatzea.

ETIKAZ ARITZEAN

Ezin da «bi-gehi-bi-berdin-lau» bezalako baieztapenik egin, baina horrek ez du esan nahi «bakoitzak bere etika» daukanik

ELKARBIZITZA PUBLIKOA

Derrigorrezkoa da gutxieneko batzuk guztiok onartzea. Esparru horretan etikaren erlatibismoa bera erlatiboa da

esaldiak

«Segurtasun Batzordeak
legezkoaren kontra egiten
badu, armak hartzea beste
erremediorik ez dugu izango»

BUCHARAYA HAMUDY

(Saharako Errepublika Arabiar
Demokratikoko lehen ministroa)

«Segurtasun handiko
garaiak pasatu dira;
orain zalantza hori
kudeatzen ikasi
behar dugu»

PEDRO MIGUEL ETXENIKE

(Ikertzailea)

«Txina Ameriketako
Estatu Batuetatik
ikasten ari da gerra
modu azkar eta zehatzean
nola egin»

JONATHAN SPENCE

(Txinako gaian aditua Yaleko Unibertsitatean)

«Merkataritza gune handiak
hedatzeak ez digu erraztu
lana; erosketak beste era
batean egiteko moduak
berreskuratu behar ditugu»

MAITE ARISTEGI

(EHNE sindikatuko idazkari nagusia)